

Gurasoekiko harremana: unitateen laburpen didaktikoa:

URTXINTXA proiektuak gurasoekiko harremana bideratzeko hainbat tresna proposatzen ditu unitateetan zehar. Ondoren ikus daitezkeen tresna berriz, hiruhilabete bakoitzari hasiera eman aurretik, garai horretan gelan landuko diren edukien berri emateko dago pentsatuta. Gurasoei zuzenduriko gutuna, gaien ikas-norabideen laburpena eta zenbait duki zehatzen deskribapena (artelana eta musika klasikoaren entzunaldia) aurki daitezke dokumentu honetan. Bestetik, gurasoek denboraz jakin dezaten, etxetik haurrek ezer ekarri behar badute, hori ere adierazten zaie, hala nola haurraren behaketarako irizpide nagusiak zein diren.

Irakasleei dagokie erabakitzea, informazio hau bere osotasunean bidaliko den ala ikastetxearen praktikaren arabera egokitu edo lanurtuta bidaliko den.

Hiruhilabete hasieretan gurasoei bidaltzeko GUTUNA

Gurasoak agur:

Hiruhileko berriari hasiera eman diogun honetan, hemen igortzen dizuelanduko ditugun gaien laburpen txiki bat, eta baita haurren garapenaren behaketarako erabiliko ditugun irizpide nagusien zerrendatxo bat ere.

Unitate bakoitzeko gaia, hainbat ataletan zatitu dugu. Unitateati, gehieneran, gaiarekin zerikusia duen ipun batekin ematen diogu hasiera, ondoren, atal bakoitzaren inguruan, edukiak lantzeko: hizkuntzazkoak (horma-irudia, olerkiak, igarkizunak, tradiziozko abestiak, euskaraz jolasteko abestiak e.a.), matematikakoak, musikakoak, plastikakoak eta gorputz adierazpenekoak, nortasunari dagozkionak...

Bestalde, unitate bakoitzean artelan bat behatu (zebaitetan propsamenean aoinarriturik gure artelana eraikitzen dugu) eta musika klasikoko obra baten ataltxo bat ere entzuten dugu. Obra horiek bere osotasunean etxean entzun nahi bazenituzte, aipamen bat ere bidaltzen dizut.

Zuen haurrak gela barruan egiten duenaren berri izatea baliagarri izango zaizuelakoan, besarkada handi bat eta beste bat arte.

TXIRRITX KILKERRA

Lehen hiruhilabeteen gurasoei bidaltzeko IKAS-NORABIDEAK eta UNITATEEN LABURPENAK

1. gaia: IKASTOLA. Berriro ikastolara!

- Urte osoan zehar maskoata edo bidaia-lagun izango duten Txirritx kilkerra ezagutuko dugu

- Ikastolara joan nahi ez zuen Koxmeren gezurrak eta abenturak kontatzen dituen ipuina eta bere inguruko abesti, jolas eta beste jarduerak egingo ditugu.
- Oporrak non pasa ditugun zer garraio mota erabili dugun, zer moduz pasa dugun... jorri guztiari buruz hitz egin eta hainbat lan egingo ditugu, Oporretako aldizkaria barne
- Gela berria eta ikastola osoa ere arakatuko dugu, han dauden gelak, pertsonak, lanbideak... behatuz. Bestetik, gelako antolaketa eta apainketari ere ekingo diogu.
- Artelana: Sorolla. *Neskatxak hondartzan*
- Entzunaldia: Bernaola. *Uda urdina*
- Hurrek etxetik ekarri behar dutena: oporretako argazki bat formatu apaisatuan.

2. gaia: Etxea. Etxe poxpola

- *Zazpi Antxumeen* ipuina, ipuinaren inguruko antzerkia abestiak, olerkiak eta hainbat jarduera.
- Munduko eta gure inguruko etxe motak behatuko ditugu
- Gure familia: senitartekoak, haien ezaugarri batzuk, etxeko animaliak...
- Etxe barrua, gelak eta beren funtzioak aztertuko ditugu
- Entzunaldia: Guridi. *Baserria preludioa*
- Artelana: Txillida. *Gure aitaren etxea*
- Etxean: Munduko etxeen libururik baduzue hurrekin behatu eta senitartekoen hainbat datu biltzeko, hala nola gurasoen biografia txiki bat osatzeko, bi fitxa bidaliko dizkizuegu. Ondoren zuek bidalitako informazioarekin hainbat lan egingo ditugu.
- Hurrek etxetik ekarri behar dutena: familia guztiaren argazki bat.

3. gaia: UDAZKENA. Hostoak firin-faran

- *Inurri langilearen eta txirrita musikazalearen* ipuina entzun eta landuko dugu. Eta beti bezala, gaiarekin eta ipuinarekin zerikusia duten abestiak, igarkizunak, esaera zaharrak, olerkiak eta beste hainbat gauza landuko ditugu.
- Udazkeneko fruituak ezagutuko ditugu eta hauekin merienda bat ere egingo dugu.
- Ondoren, basoa udazkenean nola egoten den, zuhaitzetatik erortzen diren hostoak nolakoak diren, eta basoa zaintzeko nola jokatu behar dugun ere ikusiko dugu.
- Jarraian, San Martin egunean zer ospatzen den ezagutuko dugu eta egun honi loturiko abestiak, esaera zaharrak... ikasiko ditugu
- Entzunaldia: Mussorgsky/Ravel. *Erakusketa baterako koadroak Bydlo*
- Artelana: Ibarrola. *Naielen ostadarra*
- Hurrek etxetik ekarri behar dutena: udazkeneko fruituen zerrenda bidaliko dizuegu.

4. gaia: **GABONAK. Horra! Horra!**

- *Olentzero eta Mari Domingiren* ipuina entzun eta landuko dugu. Eta beti bezala gaiarekin eta ipuinarekin zerikusia duten, abestiak, igarkizunak, esaera zaharrak, olerkiak eta beste hainbat gauza landuko ditugu.
- Ondoren, Mari Domingi ikastolara etortzen denerako, gela apaindu eta txukunduko dugu, guk egindako Gabonetako apaingarriak erabiliz.
- Olentzerori gutuna idatzi baino lehen, jostailuak ezagutu eta etxeetara etortzen zaizkigun iragarkiak aztertuko ditugu.
- Segidan, Gabonetan jaten ditugun jaki goxoak ezagutu eta dastatuko ditugu. Eta nola ez! San Tomaseko feria prestatzen hasiko gara
- Entzunaldia: V.Williams. *Greensleeveseko fantasia*

Bigarren hiruhilabetean gurasoei bidaltzeko IKAS-NORABIDEAK eta UNITATEEN LABURPENAK

5. gaia: **GORPUTZA. Handitzen-handitzen!**

- Hasteko, gezurrak esaten dituen bere gorputzaren zatiak handitzen zaizkion neskato baten IPUINA entzun eta harekin zerikusia duten olerkiak, igarkizunak, abestiak eta jolasak ikasiko ditugu.
- Neskak eta mutilak berdina al gara? Hori ere ikusiko dugu! Eta gainera, iaz ikasten hasi ziren gorputzaren zati nagusiak ezagutzen jarraituko dugu.
- Horren ostean, bost zentzumenak (usaimena, dastamena, ukimena, ikusmena eta entzumena) zein diren ikasi eta bakoitzarekin zerikusia duten, jolasak, abestiak eta olerkiak ikasiko ditugu.
- Artelana; Bertel Thorvaldsen. *Jason eta Venus*.
- Entzunaldia: Beethoven. *Minuetoa*.
- Haurrak etxetik ekarri behar dutena: etxeko pisua eta luzera fitxa bidaltzen dizuegun eta dastamena lantzeko jakiak (bere garaian eskatuko dizikizuegu).

6. gaia: **INAUTERIAK. Kinkuran-kin, sorginak ipurdia zikin!**

- Hasieran, gure herrian oso sustraituta dauden bi egun gogoratuko ditugu: San Blas eta Santa Ageda bezpera. Egundorietako ohiturak ikusiko ditugu.
- Ondoren, inauteri aurretik ospatzen diren kaldereroen eta larderoen festak eta Euskal Herriko herri txiki batzuetan egiten diren inauteriak ere ezagutuko ditugu, bertan agertzen diren pertsonaiak pixka bat ezagutzuz (ikus horma-irudia).
- Segidan, beste ipuin bat entzungo dugu. Ez dizuet esango zein ipuin den, baina bai sorginak ateratzen direla! Uaaaaiiiii! Sor-gi-nak! Eta ipuinarekin batera, beti bezala, olerkiak, esaera zaharrak, jolasak, abestiak... ikasiko ditugu.

- Horren ostean, gure ikastolako inauterika prestatuko ditugu: mozorroa, antzerkitxoak, dantzak... eta zuekin, gurasoekin, festa bat egingo dugu. Sorginez mozorrotuko gara.
- Artelana: Nestor Basterretxea. *Akelarre*.
- Entzunaldia: Aleksandr Borodin. *Dantza polovtsiarrak*
- Hurrek etxetik ekarri behar dutena: Santa Ageda bezperarako baserritarrez jantzita etorri behar dute. Sorginez mozorrotzeko alkandora zahar bat eta gona, tokila... eta erratza (eskatuko dugu). Inauteri egunean hamaiketako/askaria egiteko jakiak (egitarauan eskatuko dugu).

7. gaia: OHIANEKO ANIMALIAK. Dulun-dulunda, elefantea non da?

- Hasteko, ipuin bat entzun eta landuko dugu eta, beti bezala, abestiak, olerkiak, jolasak, igarkizukan etab... ikasiko ditugu. Ez dizuet esango zein ipuin den, baina oso-oso-polita da, eta protagonista berriz, super-super jatorra. Protagonista hori zein den? Txa-txa-txa-txa...
- Ondoren, oihanean bizi diren animaliei buruz zenbat dakiten ikusiko dugu eta beste zenbait gauza ere bai: oihanean nola bizi diren, zoologikoetan nola egoten diren...
- Segidan... zirkua! Zirkuko animaliak eta pertsonaiak ezagutuko ditugu eta ... gelan... ZIRKU BAT ANTOLATUKO DUGU!
- Artelana: Georges Seurat. *Zirkua*.
- Entzunaldia: Georges Bizet. *Toreatzaileak* (Carmen)
- Hurrek etxetik ekarri behar dutena: Ohianeko animaliei buruzko informazioa eta argazki edo marrazkiren bat eskatuko dugu bere garaian

8. gaia: OGIBIDEAK. Zertan? Lan eta lan!

- Hasteko, irakasleak ipuin polit bat kontatuko digu. Zein ipuin den? Aaaa, esango dizuedadn gauza bakarra protagonistak lau anaia direla eta bakoitzak bere lanbidea duela; eta... eta... asko-asko gustatuko zaizuela. Ipuina entzun ondoren, beti egin ohi dugun bezala, jolasak, fitxak, olerkiak, igarkizunak... egingo ditugu.
- Segidan, hainbat lanbide ezagutuko ditugu, baita gure gurasoenak ere: arotza, kirolaria, bulegaria, harakina, arrantzalea... lanbide pila bat ezagutu eta bakoitzak zer egiren duen ikusiko dugu!
- Ondoren, lanbideen erakusketa eta irtenaldi bat antolatuko dugu.
- Artelana: Gustave Caillebote. *Arrabotariak*
- Entzunaldia: Pablo Sarasate. *Nafarroako jota*.
- Hurrek etxetik ekarri behar dutena: Gurasoen lanbidea zein den paper batean idatzita eta ahal duzuela zuen argazki bat (formatu bertikalean) lanean ari zaretela (bere garaian eskatuko dugu). Lanbideen irudiak egunkari eta aldizkarietatik moztuta.

Hirugarren hiruhilanetan gurasoei bidaltzeko IKASNORABIDEAK eta UNITATEEN LABURPENAK

9. gaia: AUZOA ETA EROSKETAK. Txotxak txotx

- Hasteko, Mitxel Murua idazleak idatzitako ipuin bat kontatuko du irakasleak. Zertaz den ipuina? Aaaa! Nik pistatxo bat besterik ez dizuet emango. Ipuinaren izenburua hau da: *Galtzak eta zapatilak!* Oso-osoa polita da eta sorgin hegalaria agertzen dira... baina sorgin txintxoak, e!
- Eta ipuina entzun ondoren beti bezala, olerkiak, jolasak... egingo ditugu.
- Gero, hainbat denda-mota ikusteko eta bakoitzean zer saltzen den jakiteko aukera izango dugu. Eta herrian/auzoan zehar irtenaldi bat egingo dugu.
- Segidan, saltzeko eta erosteko beharrezkoa den dirua eta publizitatea aztertuko dugu. Badakizue, "Erosi hau, munduko onena delako", "Hau erosten baduzue aita eta ama bezain handiak egingo zarete", " Bost eurogatik munduko gauza politena eros dezakezue"... eta horrelako iragarkiak landu eta aztertuko ditugu. A, eta aldizkari bat ere egingo dugu!
- Horren ostean, kalean ikusten ditugun bezalako denda bat gelan jarri eta erosketetara jolastuko gara. Gainera, gure erosketak egin ahal izateko, irakasleak benetako txanponak eta billeteak bezalako dirua banatuko dizkigu!
- Artelanak: *Del Monte kaxa* (1964) eta *A la recherche du shoe perdu* (1955) Andy Warhol
- Entzunaldia: Franz Joseph Haydn. *Koarteto op 3, 5 Serenata*.

10. gaia: UDABERRIAN. Loretxin loretxo

- Ezer baino lehen , basoan galdu diren haur batzuen ipuina entzungo dugu, eta beti bezala, horren inguruan abestiak, olerkiak, iragarkizunak, etab. ikasiko ditugu.
- Segidan, basoan, zelaian eta lorategietan udaberrian sortzen diren loreak aztertu eta ikasiko ditugu. Zuei gustatzen al zaizkizue loreak? A bai, eta nola jaten dituzue... tomatearekin, porru-saldarekin...? je, je, je, zein txiste txarra, e?
- Ondoren, bere kantuekin alaitzen gaituzten hegazti txikitxoei erreparatuko diegu. Txori arruntenak eta beraien ohitura batzuk ezagutuko ditugu: txantxangorria, txepetxa, kukua, txolarrea...
- Horren ostean, aukera izanez gero behintzat, loreen eta txorien erakusketa bat antolatuko dugu, guk ikasi dugun guztia beste hurrei eta gurasoei erakusteko.
- Artelana: Pierre Bonnard. *Lorategia* (1937).
- Entzunaldia: Georg Friedrich Haendel. *Largo aus "Xerxes"*.

11. gaia: OGIGINTZA. Ña-ñam, ogia eta pastela jan!

- Hasteko, bestetan bezala, ipuin bat entzungo dugu. Eta ez nolanahiko ipuina gainera! Entzungo duzuen ipuina, Euskal Herriko jendeak jentilei beren jakinduria guztia lapurtu nahi zietenekoa da. Ziur gustatuko zaizuela!
- Ondoren, euskal mitologiako pertsonaiak ezagutuko ditugu: jentilak, sorginak, lamiak, galtzagorriak, basajaunak, tartaloak...
- Segidan, ogia egiteko prozesua ikasiko dugu
- Horren ostean, pizza batzuk prestatu eta jango ditugu gelan. Bai, bai pizzak, ondo entzun duzue!
- Artelana: Daniel Txopitea. *Ziklopea*.
- Entzunaldia: Pietro Mascagniren. *Cavalleria Rusticana* obraren intermezzo bat.

12. gaia: URAREKIN JOLASEAN. Glu-glu-glu-glu

- Lehenik eta behin, ura atsegin ez zuen eta narrats samar ibiltzen zen haur baten ipuina entzungo dugu. Eta ipuinaren ondoren, beti bezala, olerkiak, igarkizunak, fitxa batzuk...
- Segidan, ura nondik datorren, non egoten den, nolakoa den, ur motak, desberdintasunak, erreka, ibaia, itsasoa... ikasiko ditugu.
- Ondoren, arrainak ikusiko ditugu. Eta arrainak bakarrik ea, uretan bizi diren beste izakiak ere bai!
- Eta bukatzeko, snif!, bukatzeko, egun guztirako irtenaldia egingo dugu, oporrei buruz hitz egin eta... datorren urtean izango duzuen lagun berria ezagutuko duzue! Nor izango den? Aaaaa! Ondo pasa oporrak eta nahi duzuen arte.
- Artelanak: Frantisek Kupka. *Ura* (1970), eta Paul Signac. *Buina gorria* (1895)
- Entzunaldia: kasetean, Schuberten *Amuarraina* kintetoaren zati bat entzungo dugu.